

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Gure produktua bezero segmentatu ezberdinetara iristeko, hainbat banaketa eta komunikazio kanal desberdin erabiliko ditugu.

Lehenik eta behin, gure bezeroekin harremanetan jartzeko komunikazio kanal egokiena interneteko webgune bat izango dela deritzogu, izan ere, bertan on-line denda, gure telefonoa nahiz helbide elektronikoa txertatuko ditugu, nahi dutenek eskuragarri izan ditzaten. Horrela, edozein zalantza edo behar izatekotan, gurekin kontaktatuko lukete zuzenean. Gainera, sare sozialetan ere arituko gara, hauetan abilak direnak gure berri izan dezaten, besteak beste, Instagram, Facebook eta Twitterreko kontuen bidez.

Bigarrenik, gure produktua honako salmenta puntu hauetan aurkitu ahal izango da: aireportuetan, ospitaleetako dendetan, farmazietan eta gure webgunean. Leku hauek honako arrazoiengatik aukeratu ditugu, alde batetik, aireportua, jende asko igarotzeaz gain, horrelako produktuak eskuragai izateak tentazioa sor lezake; izan ere, oso ohikoa da aireportuetan objektuak galtzea. Bestalde, ospitaleetako dendak eta farmaziak gure produktuarentzat leku egokiak direla deritzogu, hain zuzen ere, memoria arazoak dituzten paziente eta hauen familientzat ohikoak direlako toki hauek, eta gure produktua sektore honi ere bideratua baitago. Azkenik, edonork gure produktua eskuragarri izan dezan online zerbitzua izango dugu, kanal hau baita modurik errazena etxe guztietara iristeko.

Amaitzeko, banaketari dagokionez, gure produktua bezeroen etxeetara iristeko garraio enpresa bat azpikontratatu dugu. Gainera, enpresa hau bera izango da denda, hospitale eta aireportuetara lokalizatzailerak eramango dituena.